

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023ICGO0009

Eguna: 2023-07-18

Ordua: 19:20 – 19:32

Tokia: alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

1. Andre Gobadarien Ibai-parkea handitzeko obra-proiektua.
2. Andre Gobadarien Ibai-parkea handitzeko obren kontratazio espedientea
3. Udal-eraikinen garbiketaren 2 loteen zerbitzu-kontratuen aldaketa
4. Jolas eta aisiladi eremuak egokitzeko 2 loteetako kontratuen esleipena
5. Oialume-Martindegi eremuko saneamendu-sarea handitzeko obra-kontratuaren esleipena
6. Brigadarentzako lokal berria egokitzeko obra-kontratuaren esleipena.
7. Gabonetako argien kontratuaren esleipena.
8. Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitze, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza zerbitzuaren 2 loteen esleipena eta 3 lote hutsik jotzea.
9. Astikak elkartearen dirulaguntza izenduna
10. Astigar taldearen dirulaguntza izenduna
11. Danak Bat Ergobiko kultur elkartearen dirulaguntza.
12. Guztion programako dirulaguntzak
13. Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. Andre Gobadarien Ibai-parkea handitzeko obra-proiektua..

Alkateak azaldu ondoren obra proiektuaren nondik norakoak eta adierazi Ur Agentziaren ongi ikusia duela, are gehiago, hitzarmen bat sinatu dela obra diruz lagunduko duelako, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.-Onartzea Andre Gobadarien parkea haunditzeko proiektua, Injelan, S.L. eta Ekolur enpresek, 2023ko uztailean idatzia.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

2. Andre Gobadarien Ibai-parkea handitzeko obren kontratazio espedientea.

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza administratiboak onartzea.*

Bigarrena.- *Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea, beti ere baldintzatuta KALD-0011 kreditu gaikuntzaren onarpena*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3. Udal-eraikinen garbiketaren 2 loteen zerbitzu-kontratu aldaketa.

Alkateak azaldu du behar berriei aurre egiteko bi loteetako kontratuak aldatu behar direla eta ogasuna eta ondarea batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Udal-eraikinen garbiketaren 1. lotearen (garbiketa arruntak – garbiketa orokorrak barne) kontratu aldaketa

Lehena.- *Astigarragako Udalaren jabetzakoak diren edo hark kudeatzen dituen eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 1. **LOTE**aren (garbiketa arruntak – garbiketa orokorrak barne) kontratuaren 2. klausula aldatzea –Tomas Alba kaleko 13. zenbakiko lokala (Kalexka zerbitzua) eta Arrobitxuloko hiri-igogailua sartzeko– eta zerbitzua eman beharreko instalazioen zerrenda jarraian adierazitako honengatik ordezkatzeta:*

- Ikastola
- Kontxa Etxeberriako haurreskola
- Kultur etxe zaharra
- Erribera kulturgunea
- Sagardoetxeko instalazioak
- Sagardoetxeko biltegia
- Udaletxea
- Kiroldegiko sotoa
- Emakumeon etxea
- Frontoiko aldagelak
- Frontoiko sotoa
- Erretiratuen elkarte
- Bake epaitegia
- Arrobitxuloko lokala
- Hilerriko kabinak
- Nabarra Oinatz 11ko lokala (haur eskola zaharreko lokal handia)
- Nabarra Oinatz 5eko lokala (haur eskola zaharreko lokal txikia)
- Haur txokoa
- Txalakako lokala
- Tomas Alba 13eko lokala
- Arrobitxuloko igogailua

Bigarrena.-*Nabarra Oñatz 5eko lokalaren garbiketa-maiztasunak aldatzea.*

Hirugarrena.- *Zerbitzu-orduen kopurua handitzea urtean 273 ordutan, eta ondorioz, balditza teknikoen I. eranskina aldatzea Nabarra Oñatz 5eko eta Tomas Alba 13ko lokalei eta Arrobitxukoko*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

igogailuari dagokionez, eta garbiketa maiztasun hauek ezartzea:

- Nabarra Oinatz 5eko lokala, astean bost aldiz, astelehenetik ostiralera.
- Tomas Alba 13ko lokala, astean bi aldiz, astelehen eta ostegunetan.
- Arrobitxuloko igogailua, astean behin.

Laugarrena. - Garbiketa zerbitzu berriak data hauetan sartzea indarrean:

- Nabarra Oinatz 5eko eta Tomas Alba 13ko lokalak, 2023ko irailean.
- Arrobitxuloko igogailua, kontratu-aldaketa onartu eta hurrengo hilabetean.

Bosgarrena. - Kontratu-aldaketa honek dakarren gastuari aurre egiteko, ordaintzea gehitutako zerbitzu-ordu bakoitzeko 17,42 euro (BEZa aparte) eta urteko 681 euro kontsumigarrien horniduragatik.

Udal-eraikinen garbiketaren 2. lotearen (leihoak garbitzea) kontratu aldaketa:

Lehena. - Astigarragako Udalaren jabetzakoak diren edo hark kudeatzen dituen eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren **2. LOTEAREN** (leihoak garbitzea) kontratua aldatzea eta garbitu beharreko instalazioen artean, beste hau gehitzea: Tomas Alba 13ko lokala.

Bigarrena. - Zerbitzu-orduen kopurua handitzea urtean 15 ordutan, eta garbiketa maiztasun hauek ezartzea: leihoetako kristalak (barruko eta kanpoko aldeak) bi hilean behin eta kanpoko markoak urtean behin.

Hirugarrena. - Kontratu-aldaketa honek dakarren gastuari aurre egiteko, urteko esleipen prezioa 289,80 eurotan (BEZ aparte) handitzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4. Jolas eta aisiladi eremuak egokitzeko 2 loteetako kontratuen esleipena

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpena aukeztu du eta azaldu du kontratazio mahaiak azken bilera erabaki duela abuztua baliogabetzea epeei dagokionez, baina irizpen hau horren aurretik hartutakoa dela. Ondoren, akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena. - IPLAY URBAN DESING SL Enpresaren eskaintza ez onartzea, baldintza administratiboen 21. klausulak araututakoa ez betetzeagatik, A kartazala ez baitu behar bezala aurkeztu eta C kartazala, berriz, aurkeztu ere ez.

Bigarrena. - Astigarragako jolas- eta aisialdi-eremuak egokitzeko kontratuaren 1. lotea (Andre Gobadarien Parkeko jolas- eta aisialdi-eremuak egokitzeko elementuak hornitu eta instalatzea eta behar den obra zibilerako lanak) eta 2. lotea (Sagardo plazako jolas-eremua eraldatzeki beharrezkoak diren jolas-elementuen horniketa eta jartze lanak, eta obra zibilerako lanak egitea) hurrenez hurren 189.225 €tan eta 48.887 €tan, BENITO URBAN SL enpresari ESLEITZEA, – baldintzaturik hirugarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, hurrenez hurren, 80 eta 81 puntu

Hirugarrena. - Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin behineko bermea jarri beharko du –9.461,25 euro 1. lotearentzat eta 2.444,35 € 2. lotearentzat– eta baldintza plegu administratiboen 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta aldez aurretiko baldintzak egiaztatu.:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Laugarrena.- Abuztua baliogabetzat jotzea kontratu honen epeen zenbaketari dagokionez.

Bosgarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

5. Oialume-Martindegi eremuko saneamendu-sarea handitzeko obra-kontratuaren esleipena.

Alkateak azaldu du eremu horretan ez dagoela saneamendu-sarerik, baina etxebizitza asmo errepede ondoan daudenez, egoki ikusi dela sarea handitzea, eta hori Hernaniko Udalarekin batera egingo dela eta horretarako lankidetzeta-hitzarmena sinatu dela. Gaineratu du obra akometida pribatuetan ere egingo dela eta horretarako herritarrekin hitzarmenak sinatu direla.

Ondoren, kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Oialume-Martindegi eremuko ur beltzen saneamendu-sarea handitzeko obren 1. faseako kontratua SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari ESLEITZEA, 318.900,00 €tan, –baldintzaturik bigarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, 95 puntu, hain zuzen ere.,

Bigarrena.- Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin behineko 15.945 euroko bermea jarri beharko du – eta baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde aurretiko baldintzak egiaztatu.

Hirugarrena.- Abuztua baliogabetzat jotzea kontratu honen epeen zenbaketari dagokionez.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

6. Brigadarentzako lokal berria egokitzeko obra-kontratuaren esleipena. .

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Troia ibilbidea 18an dauden 4 lokal (L-6, L-7, L-17 eta L-18) udalaren mantentze-zerbitzuetarako (brigadarako) egokitzeko obrak egiteko kontratua, CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL eta CONSTRUCCIONES MAIZKURRENA SL enpresek eratu duten ABEeri ESLEITZEA, 668.888,92 €tan, –baldintzaturik bigarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu dutenak, 97 puntu, hain zuzen ere.

Bigarrena.- Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin behineko 33.444,45 euroko bermea jarri beharko du – eta baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde aurretiko baldintzak egiaztatu.

Hirugarrena.- Abuztua baliogabetzat jotzea kontratu honen epeen zenbaketari dagokionez.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7. Gabonetako argien kontratuaren esleipena.

Alkateak azaldu du orain arte kontratu txikiekin esleitzen zela urteroko argiztapena, eta galdeketa bat egin ondoren herritarrek jartzearen aldekoak direla ikusita, lizitazioa egitea erabaki zela.

Ondoren, kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Gabonetako argiteriaren horniketa (alokairu modalitatean), muntaketa/desmuntaketa eta mantentze/konponketaren kontratua XIMENEZ CATALUNYA SLU enpresari ESLEITZEA, 63.532,80 €tan, –baldintzaturik bigarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, 92,34 puntu, hain zuzen ere.

Bigarrena.- Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin behineko 3.176,64 euroko bermea jarri beharko du – eta baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde aurretiko baldintzak egiaztatu.

Hirugarrena.- Abuztua baliogabetzat jotzea kontratu honen epeen zenbaketari dagokionez.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

8. Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza zerbitzuaren 2 loteen esleipena eta 3 lote hutsik jotzea.

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 4. Lotera (kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna) aurkeztu den WEMA CORP. SL enpresaren eskaintza ez onartzea, baldintza administratiboan 22. klausulak araututakoa ez betetzeagatik, A eta C kartazalak dokumentu berean aurkeztu baititu.

Bigarrena.- 2. (Karpa morea) eta 5. loteak (kontsumo arduratsua eta droga-mendekotasuna) hutsik jotzea.

Hirugarrena.- Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza zerbitzuaren 1. lotea (herritarrentzako sexu eta harreman afektiboak) 17.600,00 €tan, XELEBREAK SEXOLOGIA, IGUALDAD E INTERCULTURALIDAD enpresari ESLEITZEA, –baldintzaturik laugarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, 87,60 puntu, hain zuzen ere.

Laugarrena.- Enpresa esleipendunek, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, 880 euroko behin behineko bermea jarri beharko du eta baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eta alde aurretiko baldintzak egiaztatu.

Bosgarrena.- Harreman osasuntsuak eta parekideak eraikitzeko, droga-mendekotasunari eta indarkeria matxistari begirako prebentziorako sentsibilizazio-, formakuntza- eta aholkularitza



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

zerbitzuaren eta 3. lotea (harreman osasuntsuak eta parekideak) lan orduko 65 €tan, HARREMANAK HEZKUNTZA ELKARTEA enpresari ESLEITZEA, –baldintzaturik seigarren akordioan jasotakoa betetzera–, bera izan baita lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, 83,15 puntu, hain zuzen ere.

Seigarrena.- Enpresa esleipendunek, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, 640,25 euroko behin behineko bermea jarri beharko du eta baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatu.

Zazpigarrena.- Abuztua baliogabetzat jotzea kontratu honen epeen zenbaketari dagokionez.

Zortzigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

9. Astikak elkartearen dirulaguntza izenduna.

Alkateak azaldu ondoren elkarteak katuekin egiten duen jardura eta diruz lagunduko dena, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astikak elkarteari 5.000 euroko dirulaguntza izenduna onartzea, 1 0400.481.01.410.00 2023 (2504) partidaren kargura.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

10. Astigar taldearen dirulaguntza izenduna.

Alkateak kultura eta jaiak batzorde informatiboko irizpena aurkeztu du, eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- 1 0600.481.01.334.12 2023 kontu-sailaren kargu 21.800 euroko diru-laguntza izenduna onartzea. Diru-laguntzaren ordainketa, hitzarmenaren arabera egingo da.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

11. Danak Bat Ergobiko kultur elkartearen dirulaguntza.

Alkateak kultura eta jaiak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Danak bat elkarteari 13.500euroko laguntza ematea Ergobiako jaiak bidertazeko beharrezkoak diren soinu eta argi ekipoetarako eta bestelako azpegiturak alokatzeko eta muntatzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Dirulaguntzatik kanpo gelditzen dirakarpa eta eszenarioarentzako estalkia alokatu eta muntatzeko gastua, horiek aurten udalak bere gain hartuko baititu.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

12. Guztion programako dirulaguntzak.

Alkateak dirulaguntza lerro honen nondik norakoak azaldu ondoren, tokiko garapena batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Asier Piera Fortunari (445.558.28 K) 4.000 euroko dirulaguntza onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

13.- Informazio, galdera eta eskariak.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko uztailaren 18an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria